

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 2998

*IRAGARKIA, zeinaren bidez informazio publikoaren izapidean jartzen baita honako lege-aurreproiektua: Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea.*

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko maiatzaren 14ko Aginduaren bidez, aurretiaz onartu da Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege-aurreproiektua.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikulua xedatzen duen arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Horrenbestez, aipatutako lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen da hogeiei egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, eta alegazioak aurkezteko, aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren iragarki-taulan ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) eta Lan eta Enplegu Sailaren web-orrian ([www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lan-enplegu-saila/](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lan-enplegu-saila/)).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 14a.

Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria,  
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.